

ERREFERENTZIA-TERMINOAK

Dibulgaziozko argitalpena, LGTBI kolektiboaren giza eskubideen errespetuari/uraketari buruzkoa, unibertsitate-esparrutik hasi (Ekonomia eta Enpresa graduetan, bereziki), lan-merkatuan sartu eta gradu horiekin lotuta egon ohi diren lanbideetan ibilbide profesionala garatzera artekoa. Dokumentuak, halaber, ibilbide horren hasieratik egin beharreko hobekuntza-proposamenak ere jasoko ditu, hau da, unibertsitateko hezkuntzaren esparrukoak.

A.- AURREKARIAK

MgEn (Mugarik gabeko Ekonomilariak) gizarte eta ekonomia bidezkoago eta solidarioagoak eraikitzeko egiten dugu lan, eta uste dugu herritar konprometituen antolakuntza eta parte-hartzea direla hori lortzeko bide bakarra. Horretarako, gizarteraldaketarako sentsibilizazio- eta hezkuntza-lanean dihardugu, sozialki arduratsuak diren jokabideak bultzatuz eta gizarte-mobilizazioa eta eragin politikoa sustatuz.

Ildo horretatik, LGTBI kolektiboak jasandako diskriminazioa agerian uztea dugu xede, aniztasuna baztertzeko duen gizarte patriarkal eta heteronormatiboaren oinarria baitu jatorri. LGTBI kolektiboak jasandako eskubide-uraketez kontzientziatu eta haren defentsa planteatu nahi dugu, maila guztietan gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat lortzeko tresnatzat balio dezan.

MgE Euskadin zenbait ekintza egin ditugu LGTBI kolektiboaren eskubideak sustatzeko, hala nola Zubiri Manteoko Lanbide Heziketako ikasleek egindako ekitaldia, eta “Una mujer fantástica” filmaren inguruko eztabaida. Ekintza biek Gehituren laguntza izan dute.

Horrez gain, 2010az geroztik modu sistematizatuan ari gara unibertsitate-esparruan esku hartzen; horretan lagundu digute Donostiako Udalak, Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak.

Unibertsitateak, ezagutza sortzen eta zabaltzen jarduten dutela eta gizartean gailentzen direla kontuan hartuta, funtsezko zereginak hartu behar dituzte beren gain, gizarte inklusibo eta solidario bat lortzeko. Argitalpen honen bidez, hain zuzen, esparru horri egin nahi diogu argi.

B.- ARGITALPENAREN HELBURUAK

Argitalpenak, bereziki, dibulgaziozkoa eta sentsibilizaziozkoa izatea du xede, eta unibertsitateko ikasleei (Ekonomia eta Enpresa graduetakoak, bereziki) eta graduotako irakasleei zuzenduta dago.

Horrez gain, argitalpenak bi kolektibo horiek egin beharreko ekintza-proposamenak aurkeztuko ditu, eta kontuan hartuko ditu, besteak beste, 2030 Agenda zeharkakotzeak UPV/EHUn eskaintzen dituen aukerak eta LGTBI eskubideen sustapenarekin lotutako tresnak eta tresna publikoak, hala nola Era Berean sarea, Berdindu eta Campus Bizia lab.

1. LGTBI pertsonen giza eskubideekiko egoera Euskadin; lehenik eta behin, Ekonomia eta/edo Enpresa graduetako ikasleen/irakasleei dagokienez, eta, ondoren, ikasketak amaitu ondoko haien ibilbide profesionali dagokienez: lan-merkatuan sartzean eta gradu horiekin lotuta egon ohi diren lanbideetan ibilbide profesionala garatzean dituzten arazoak.
2. Ekintza-proposamenak, kolektiboaren beharrak eta interesak ikusarazteko eta Euskadiko unibertsitate-esparruan giza eskubideen errespetua sustatzeko. Ekintza-proposamen horiek gauzatzeko, kontuan hartuko dira Euskadiko unibertsitate-esparruko mekanismoak, hala nola 2030 Agendaren sustapena UPV/EHUn, Campus Bizia Lab... bai eta LGTBI eskubideen defentsarako euskal tresna publikoak eta legeria ere.

C.- ARGITALPENAREN LANAK

Argitalpenak dibulgaziozko formatua eta hizkera izango ditu, erraz eta azkar irakurtzeko modukoa izango da eta gradu horietako ikasleak eta irakasleak sentsibilizatzea izango du helburu. Horrez gain, grafikoak, irudiak eta bestelako elementu bisualak argitalpenean txertatzea baloratuko da. Kontuan hartuko da, halaber, beste argitalpenen erreferentziak gehitzea, aztertutako alderdietan sakontzeko eta esparru honen baitan dagoeneko egin den lana ikusarazteko.

Dokumentua bi ataletan banatu ahal izango da: egoera eta ekintza-proposamenak. Entrega-data bereiz daiteke, baldin eta egin beharreko lanaren luzapenagatik beharrezkotzat jotzen bada. Lehen atala 2020ko azarorako amaitu beharko da, eta, bigarrena, 2021eko urtarrilerako.

Planteatutako ekintza-proposamenerako aintzat hartuko da Hegoaldeko herrialdeen praktika egokiak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruko praktika egokiak erabiltzea, jakintzak eta ikaskuntzak tokian tokiko eta nazioarteko ikuspegi batetik eraiki ahal izateko.

D.- PROPOSAMEN TEKNIKO ETA EKONOMIKOA AURKEZTEKO EPEAK

Planteatutako emaitzak eta produktuak lortzeko, honako data hauek proposatzen ditugu:

- A. Jarraitu beharreko metodologia, epeak, lantaldea eta zenbatetsitako aurrekontua jasoko dituzten proposamenen bidalketa: 2020ko irailaren 25a.
- B. Lanaren hasiera: 2020ko urria.
- C. 1. entrega (egoera): 2020ko azaroaren amaiera.
- D. 2. entrega (ekintza-proposamenak): 2021eko urtarrila.

Proposamenaren edukia argitalpenerako aipatutako bi ataletako bati buruzkoa izango da.

Proposamen osoaren aurrekontuak 5.000 euro ingurukoa izan beharko du.

Pertsona edo erakunde interesdunek honako helbide honetara bidali beharko dute eskaintza tekniko eta ekonomikoa: ecosfron.euskadi@ecosfron.org. Mezuaren gaia honako hau izango da: Erreferentzia-terminoen argitalpena Euskadiko Ekonomia eta Enpresa graduetako LGTBI kolektiboa.